



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

EUROPAREN EGUNA

DÍA DE EUROPA

HITZALDIA - DISCURSO

Bakartxo Tejeria
Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Presidenta del Parlamento Vasco

2018.05.09





Jaun andreok, egun on guztioi eta ongi etorriak.

Europaren Egunean, Europaren etorkizunari buruz hausnarketa egiten ari gara. Gaurkoan, euskal partaidetzarekin egin zen Hagako biltzarraren 70. urteurrena dugu gogoan eta gainera, Eurobasque erakundeari Eusko Jaurlaritzak gaur bertan emango dion *Lagun Onari* saria pozteko arrazoi dugu.

Zorionak Eurobasqueri, eta zorionak urte luze hauetan eta egun Europako Mugimenduaren euskal kontseilua ahalbideratu duten guztiei. Euskal gizarteari hedatu behar diogun zoriona. Hagako biltzarraren oroitzak eta Eurobasqueren ibilbideak gogorarazten badizkigute euskal herritarrak ez garela iritsi berriak Europaren eraikuntzara. Horrekin batera, gu -egungo euskaldunok- behartzen gaitu iraganean bezala orainean eta etorkizunean ere Europaren eraikuntzan partaide aktibo izatera.

Eusko Legebiltzarra bete-betean ari da Europar Batasunaren etorkizunari buruzko gogoeta egiten. Eztabaida ematen ari da -batez ere- Europako Gaien eta Kanpo Harremanen Batzordean. Batzordeak erabakiko baitu Eusko Legebiltzarraren jarrera Liburu Zuriari eta Europar Batasunaren etorkizuneko aukerei dagokienez. Hausnarketa horren barruan gauzatuko da, gainera, ekainaren 15ean euskal europarlamentariaren Batzordeko agerraldia.

Nire Europaren eguneko gaurko gogoeta honen oinarri edo hasiera gisa, garrantzitsua jotzen dut Europaren integrazioaren hastapenak eta funtsak gogoratzea eta ulertzea: bakea, giza eskubideak, antitotalitarismoa eta demokrazia. Europak balio batzuk bermatzen ditu –bermatu behar ditu-, gorrotoa eta hilketak gainditzeko, era sortzailean pentsatzeko elkarrekin bizi ahal izateko. Europak bere herritarren zerbitzura egon behar du, pertsona izan behar du abiapuntu, bere sorreran aritu ziren estatu-politikari handiek hainbatetan adierazi zuten bezala. Oraingo gizarte-eredu europarrak, non pertsona eta elkartasuna diren oinarri nagusiak, inbidia eragin du mundu osoan.

Une honetan Europar Batasunari erasotzen ari dira alde desberdinetatik, beraz, beharrezkoa da Europaren ideia hura defendatzea, Europa soziala eta printzipioduna. Euskaldun europeista ospetsu batek, Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde Francisco Javier de Landaburuk, adierazten zuenez, baliteke dagoen Europa ez izatea amestutakoa, baina aldatu beharko dena da. Ezin diogu Europari uko egin, oraindik ere akats asko izan arren.





Europa da eskalarik egokiena oraingo arazorik larrienetako askori arrakastarako aukera onenekin heltzeko. Europako eskalak soilik bermatu ahal du Europaren ahotsa entzutea munduko erabakiguneetan. Europar Batasuna soilik saiatu ahal da gizarte-eredu europarra babesten kontrolik gabeko globalizazio ekonomiko eta finantzarioaren aurrean.

Europa esparru politiko bat ere bada, non hartzen baitira gure herritarrei eragiten dieten erabaki garrantzitsuenetako asko. Horregatik ere funtsezkoa da Europaren etorkizunari buruzko eztabaida eta horregatik ere ezinbestekoa eztabaida horretan gure parte hartzea.

Genioenez, Europa da eskala egokia, baina kontua ez da eskala soilik. Behar dugu Europa politikoa, federala, Europa- eta mundu-mailako arazoak konpontzeko ahalmenarekin. Etorkizuneko Europa, orain eztabaidatzen ari dena, gure iritzi publikoetatik hain urrun ematen duten eztabaidetan murgilduta dagoena, herritarrek ere diseinatu behar dute, eta elkarteek, alderdi politikoek, herri handi eta txikiek, eskualde eta udalerriek, hain zuzen ere, defendatzen jarraitzea merezi duten balio batzuekiko konpromisoa oinarritzat hartuta. Parte-hartze hori funtsezkoa da; gainera, Europar Batasunaren sozializazio egokiaren bermea da.

Instituzio parlamentarioak garen aldetik, europar eredu politiko demokratikoago bat defendatu behar dugu. Erronka da demokrazia berri bat asmatu eta diseinatzea, aurrekaririk gabeko eskala batean, askoz konplexuago eta demokratikoagoa den batean. Parlamentarismoa berrasmatu behar da, zeren orain eskala politiko desberdinak, hainbat eremutako parlamentu ugari, interkonektatu behar baitira. Eta azken emaitza eraginkorra izan behar du. Legitimitate demokratikoa eta efikazia harmonizatu behar dira.

Zereginaren konplexutasunak ez digu ahalegina egitea eragotzi behar. Pedagogia egin behar da eta herritarrei azaldu behar zaie prozesu hau zaila eta beharrezkoa dela. Horrela bakarrik borrokatu ahal izango ditugu populismoa eta geldotasuna. Eztabaida aberatsak eta edukidunak sustatu behar ditugu egoitza parlamentarioetan. Horrela bakarrik ahal izango ditugu herritarren kezak jaso eta europar foroetara eramane. Bakoitzak bere esparruan eta bere erantzukizun-kuotarekin.

Hauxe da XXI. mendeko eztabaida handia, eta ezin dugu horretatik kanpo geratu. Pentsatzen eta parte hartzen ez badugu, beste batzuk arituko dira gure ordeiz. Eta, seguru asko, gure interes eta beharrianak ez dira ordezkaturik egongo une hauetan bertan eraikitzen ari den Europan.





Celebramos el Día de Europa con una reflexión sobre el futuro europeo. Lo hacemos recordando el 70 aniversario de la cumbre de La Haya celebrada con participación vasca, celebrando además con especial alegría el premio Lagun Onari concedido por el Gobierno Vasco a Eurobasque, Consejo Vasco del Movimiento Europeo, por toda su trayectoria.

Felicidades a Eurobasque, a todas las personas que ahora y en el pasado han hecho posible la existencia de la sección vasca del Movimiento Europeo Internacional. En una felicitación que es extensiva la sociedad vasca. El recuerdo la participación vasca en la cumbre de La Haya y la propia Eurobasque nos dejan muy claro que vascas y vascos y nuestras instituciones no somos recién llegados a la construcción de Europa y, al tiempo, nos obligan a seguir siendo agentes activos en el proceso de hacer Europa.

El Parlamento Vasco está en plena reflexión sobre los escenarios de futuro de la Unión Europea. El debate está residenciado –principalmente- en la Comisión de Asuntos Europeos y Acción Exterior, en el seno de la cual, se decidirá la posición del Parlamento sobre el Libro Blanco del Futuro de Europa y las perspectivas de futuro de la Unión Europea. En ello se está trabajando con diferentes comparecencias programadas, entre las que cabe remarcar la presencia en la Comisión de parlamentarias y parlamentario de la Eurocámara prevista para el próximo 15 de junio.

Como base e inicio de esta reflexión, es importante recordar los orígenes y comprender los fundamentos de la integración europea: paz, derechos humanos, anti totalitarismo y democracia. Europa es -debe ser- garantía de unos valores, de superar el odio y las matanzas, de pensar de forma creativa para poder convivir. Europa debe estar al servicio de su ciudadanía, partir de la persona, como tantas veces repitieron los y las grandes estadistas que la alumbraron. El modelo social europeo, en el que la persona y la solidaridad son pilares centrales, ha sido la envidia del mundo.

En un momento en el que desde diversas posiciones se ataca a la Unión Europea, es preciso defender esta idea de Europa, una Europa social y con principios. Como señalaba un vasco y europeísta insigne, Francisco Javier de Landaburu, Vicepresidente del Gobierno Vasco en el exilio, puede que la Europa existente no sea la soñada, pero es la que hay que reformar. No podemos renunciar a Europa, por muchas imperfecciones que presente aún.





Europa es la escala adecuada para abordar con mejores perspectivas de éxito muchos de los problemas más acuciantes de la actualidad. Sólo la escala europea puede garantizar que la voz europea se escuche en los centros mundiales de decisión. Sólo la Unión Europea puede intentar proteger el modelo social europeo frente a una globalización económica y financiera descontrolada.

Europa es también un marco político en el que se toman muchas de las principales decisiones que afectan a nuestras ciudadanas y ciudadanos, también por eso es fundamental el debate sobre el futuro de Europa y nuestra participación activa en el mismo.

Decíamos que Europa es la escala adecuada, pero no es una cuestión de simple escala. Necesitamos una Europa política, federal, con poder para resolver los problemas de escala europea y mundial. La Europa del futuro que se está discutiendo ahora, y de cuyos debates tan alejadas parecen nuestras opiniones públicas, debe ser diseñada también por la ciudadanía, por las asociaciones, por los partidos políticos, por los pueblos grandes y pequeños, por las naciones, regiones y municipios, en base al compromiso con unos valores que merece la pena seguir defendiendo. Resulta fundamental esta participación, garantía además de una adecuada socialización de la Unión Europea.

Como institución parlamentaria que somos deberemos defender un modelo político europeo que sea más democrático, en el que las voces de la ciudadanía sean fielmente representadas en las instituciones europeas. El reto es pensar y diseñar una democracia nueva, a una escala sin precedentes, mucho más compleja y democrática. Hay que repensar el parlamentarismo, puesto que ahora debemos interconectar distintas escalas políticas, numerosos parlamentos de ámbitos distintos. Y el resultado final debe ser eficaz. Debemos ser capaces de armonizar, por lo tanto, legitimidad democrática y eficacia.

Este es el gran debate del siglo XXI, y no podemos permanecer ajenos a él. Si no pensamos y participamos otros lo harán por nosotros. Y seguramente nuestros intereses y necesidades no estarán representadas en la Europa que se está construyendo en estos mismos momentos.

